



UDALBILTZA

LAN DEIALDIA

UDALBILTZAko TEKNIKARI LANPOSTUA

Ipar Euskal Herriko teknikari-dinamizatzaile lanpostua betetzeko hautaketa prozedura

Lehenengoa. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea Udalbiltzan Ipar Euskal Herriko teknikari-dinamizatzaile lanpostua betetzeko hautaketa prozedura arautzea da. Merezimendu eta gaitasun printzipioak nahiz egokitasun-irizpideak hartuko dira oinarritzat, betiere, publizitatea eta lehia bermatuz.

Bigarrena.- Kontratazioaren baldintzak

- 2.1.- Kontratu mota: iraupen jakinekoa.
- 2.2.- Lanaldia: %50.
- 2.3.- Soldata: Lan hitzarmenaren araberakoa.
- 2.4.- Iraupena: Lanpostua behin betiko betetzeko prozedura egin arte.
- 2.4.- Hizkuntza-eskakizuna: Euskarazko eta frantsesezko erabateko gaitasuna lan egiteko.

Hirugarrena. Eginkizunak.

Hautatuko pertsonak Ipar Euskal Herriko teknikari eta dinamizazio lanpostua beteko du. Bere mailarako egokiak diren beste batzuk baztertu gabe, hauek izango dira bere eginkizun nagusiak:

- a) Udalbiltzaren proiektuak dinamizatzea Ipar Euskal Herrian.
- b) Ipar Euskal Herriko udal eta hautetsiekin egin beharreko harremanaz eta komunikazioaz arduratzea (Barne komunikazioa).



- c) Ipar Euskal Herriko udalekin harremanak egin, garatu eta mantentzea.
- d) Ipar Euskal Herriko udal hautetsiekin harremanak egitea Udalbiltzakide gehiago lortzeko.
- e) Ipar Euskal Herriko eragileekin eta bestelako erakunde edo herritar taldeekin harremanak bideratzea.
- f) Udalbiltza orokorrean Ipar Euskal Herrian dinamizatzea eta sendotzea.
- g) Udalbiltzaren proiekturen baten ardura teknikoa hartzea.
- h) Aipaturiko eginkizunekin lotura duten txostenak prestatzea.
- i) Bere kategoriaren arabera egin beharreko beste lanak.

Laugarrena.- Hautagaiaren ezaugarri edo perfila:

Ondoko ezaugarriak kontutan hartuko dira:

- a) Bere buruarenganako konfiantza izatea, ideiak eta proiektuak konfiantzaz aurkezteko gaitasuna izatea.
- b) Instituzio, eragile eta norbanakoekin harremanak sortu eta elikatzeko gaitasuna izatea.
- c) Laneko eginkizunetan sortzailea eta berritzailea izatea.
- d) Egoera zailtan aurrera egiteko gaitasuna izatea.
- e) Lanak planifikatzeko eta detaile txikiak zaintzeko gaitasuna izatea.
- f) Euskara eta frantsesa ez diren beste hizkuntzak ezagutzea baloratuko da: gaztelera, ingelesa, ...

Bosgarrena. Hautagai izateko baldintzak.

Deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) Ikasketak: Baxoa+2.
- b) Ibilgailuak gidatzeko baimena izatea.
- c) Hizkuntzak: Lana euskaraz eta frantsesez egiteko erabateko gaitasuna izatea. Hau probatuko da C1 titulua edo baliokidea izanez gero edo bestela, elkarriketan eta idatzizko proben bidez ebaluatuko da.
- d) Ipar Euskal Herriko errealitate sozio-ekonomikoa eta politikoa ezagutzea.



e) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko lukeen gaixotasunik edota ezintasun fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete behar dira.

Seigarrena. Eskabideak.

Eskabideak oinarri hauen I. Eranskinean ereduari egokituko zaizkio.

Deialdi honetan onartuak izateko eskabideak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek adieraziko dute deialdiaren bosgarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak beteta dituztela, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Ez dira onartuko eskabidean frogatzen edo zerrendatzen ez diren merezimenduak.

b) Horrez gain, eskabidearekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

- Curriculum vitae-a euskaraz. Lan esperientzian hasiera eta bukaera datak zehaztuko dira.
- Motibapen gutuna.
- Nortasun agiri baten fotokopia.
- Ibilgailuak gidatzeko baimenaren fotokopia.
- Eskabidean adierazi diren merezimenduak frogatzen dituzten agirien fotokopiak, lehiaketa fasean balora daitezzen.

c) Eskakerak, behar bezala beteta, ondorengo helbidetara bidaliak izango dira:

- email: udalbiltza@udalbiltza.eus

Azaroaren 17an izango da azken eguna eskabideak aurkezteko.

Zazpigarrena. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko da <http://www.udalbiltza.eus> web gunean.



Aipatutako zerrendatik kanpo gelditutako izangaiek, 2 eguneko epea izango dute baztertze horretako akats edo hutsak zuzentzeko, zerrenda argitaratu ondoreneko egunetik hasita.

Behin-behineko zerrenda hori automatikoki behin betikotzat hartuko da, inolako erreklamaziorik egingo ez balitz. Erreklamaziorik balego, berriz, hauek onartu edo baztertu egingo dira, legokiekeen eran, aurreko zerrendaren modu bera erabiliz jendaurrean jarriko den behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean.

Ondoren, epaimahaiak, elkarrizketa pertsonala egiteko eguna erabakiko du. Ebazpen hori www.udalbiltza.eus web gunean jarriko da.

Epaimahaiaren gainerako jakinarazpen eta komunikazio guztiak, www.udalbiltza.eus web gunean argitaratuz egingo dira.

Zortzigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

Ondorengo hauek osatuko dute Epaimahaia:

- Lehendakaria: Udalbiltzako lehendakaria.
- Kideak: Udalbiltzako Batzorde Eragileko bi kide
- Idazkaria

Egoki iritzitako probetarako, dagokion gaietan adituak diren pertsonen aholkua eta laguntza eskatu ahal izango du Epaimahaiak.

Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak eta aurreikusita ez dauden kasuetan nola jokatu behar den.

Bederatzigarrena. Elkarrizketa pertsonala eta proba idatzia.

9.1.- Elkarrizketarako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, behar bezala justifikatu eta Epaimahaiak askatasun osoz aztertutako ezinbesteko arrazoi larriak izan ezik. Deialdi honetan zehaztuko dira elkarrizketarako zein proba idatzia aurkezteko data, ordua eta lekua zein bestelako zehaztapenak.

Elkarrizketa pertsonalaren bitartez nortasun-ezaugarri orokorrak eta hautagaien kompetentzia profesionalak ebaluatuko dira, lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko hautagaiaren egokitasuna ebaluatze aldera.



Elkarrizketan Curriculum Vitae eta Motibapen gutunari buruzko galderak ere egingo dira.

Elkarrizketa euskara hutsean izango da eta elkarrizketaren bitartez, hizkuntza gaitasuna neurtuko da lanposturako beharrezko maila frogatzeko agiririk aurkeztu ezean.

Ariketa honetan gehienez 30 puntu emango dira. Elkarrizketa pertsonala gainditzeko 15 puntu lortu beharko dira gutxienez.

9.2.- Proba idatzia elkarrizketaren egunean bertan aurkeztuko dute hautagaiek, galdera baten inguruan gogoeta egitea proposatuko zaie. Proba idatzirako galdera elkarrizketarako deialdian bertan zehaztuko da. Ariketa hau euskara hutsean idatziko da eta zuzentasun ortografikoa zein sintaktikoa ere ebaluatuko dira.

Ariketa honetan gehienez 30 puntu emango dira. Elkarrizketa pertsonala gainditzeko 15 puntu lortu beharko dira gutxienez.

9.3.- Hautaketa prozedura honetara 20 hautagai baino gehiago aurkezten badira, epaimahaiak aukera izango du elkarrizketa pertsonala baino lehen gaitasun proga bat egiteko. Kasu horretan, test erako hainbat galdera erantzun beharko dira, funtsean lanpostuak eskatzen duen gaitasuna balioesteko. Gehienez 10 puntu emango dira eta 5 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Ariketa egiten bada, deialdi bakarraren bidez egingo da honetarako deia hautagaiei.

Fase honetan beraz, gehienez 60 puntu lortu ahal izango dira.

Gutxieneko puntuazioa lortu dutenei lehiaketa faseko puntuazioa gehituko zaie. Guztira lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira izangaia.

Hamargarrena. Lehiaketa fasea.

Atal honetan, Epaimahaiak, ondorengo merituak baloratuko ditu, aurrez adieraziak eta egiaztatuak izan badira:

a) Lan esperientzia: Deialdi honetan deskribatutako zeregin berdinetan edo baliokide diren eginkizunetan izandako esperientzia ebaluatuko da. Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu emango dira gehienez, betiere



esperientzia eta lanpostuaren ezaugarrien loturaren arabera. Atal honetan 20 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

b) Beste formazioa: Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaietan emandako prestakuntza ikastaroetan izatea edota ikastaroa gainditzea. Gehienera 12 puntu emango dira baremo hauen arabera:

-40 orduetik 100 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 1 puntu.

-101 orduetik 200 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 2 puntu.

- 201 orduetik 300 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 3 puntu.

- 300 orduetik gorako ikastaro bakoitzarengatik: 4 puntu.

c) Hizkuntza tituluak: Atal honetan 8 puntu jaso ahal izango dira gehienez baremo hauen arabera:

- Gaztelera titulua:

A1 maila edo parekidea: 2 puntu.

A2 maila edo parekidea: 3 puntu.

B1 maila edo parekidea: 4 puntu.

B2 maila edo parekidea: 5 puntu.

C1 maila edo parekidea: 6 puntu.

C2 maila edo parekidea: 7 puntu.

- Bestelako hizkuntzen tituluetan:

A1 maila edo parekidea: 1 puntu.

A2 maila edo parekidea: 2 puntu.

B1 maila edo parekidea: 3 puntu.

B2 maila edo parekidea: 4 puntu.

C1 maila edo parekidea: 5 puntu.

C2 maila edo parekidea: 6 puntu.

Lehiaketa fase honen puntuaketa elkarrizketa pertsonalaren fasean lortu beharreko gutxieneko puntuazioa lortu dutenei egingo zaie. Lehiaketa fasean gehienez 40 puntu emango dira.



Hamaikagarrena. Kalifikazioa eta gainditu dutenen zerrenda.

Behin elkarrizketa pertsonala eta idatzizko proba eginda, guztirako kalifikazioa jendaurrean jarriko da www.udalbiltza.eus web gunean.

Behin-betiko sailkapen ordena, elkarrizketa pertsonala, idatzizko proba eta lehiaketa faseko ariketak elkartuz ateratako puntuen batuketak emango du.

Hamabigarrena. Epaimahaiaren proposamena.

Epaimahaiak puntuazio gehien lortu duen hautagaiaren kontratazioa proposatuko dio Udalbiltza Elkarteari. Proposamen hori derrigor betetzekoa izango da Udalbiltza Elkartearentzat.

Hamahirugarrena. Gorabeherak.

Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, Oinarrietan jaso gabeko guztiaz sor daitezkeen zalantza eta gorabeherak erabakitzeke eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

Usurbilen 2020ko urriaren 28an
LEHENDAKARIAK



I ERANSKINA

UDALBILTZA

**IPAR EUSKAL HERRIKO TEKNIKARI-DINAMIZATZAILEA
KONTRATATZEKO HAUTATZE PROZEDURAN PARTE HARTZEKO
ESKAERA**

1.- NORTASUN DATUAK:

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
NAZ	Jaiotze data	Telefonoa
Helbide elektronikoa (derrigorrezkoa)	Helbidea	Herria
Herrialdea	Posta Kodea	

2.- HEZKUNTZA:

Titulua	Eskola/Unibertsitatea	Data
---------	-----------------------	------

3.- LAN ESPERIENTZIA:

SARRERA DATA	IRTEERA DATA	LANTOKIA	IZANDAKO LANPOSTUA



4.- BESTE TITULU EDO IKASKETAK:

Merituen balioespenerako datuak

Titulua	Iraupena: orduak

5.- ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:

- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Curriculum vitae.
- Motibapen gutuna
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Ibilgailuak erabiltzeko B baimenaren fotokopia.
- Alegatutako merezimenduen fotokopiak.

Behean sinatzen duenak, eskaera honi dagozkion aukeratze probetan onartu izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak beteta dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

Tokia eta data:.....

Sinadura: